

# EDITORIALA

Irailean udarari amaiera eman genion eta orain neguko solstizioari agurra emango diogu. Bitartean egunak pasa dira arin edo astun, norberak daki. Zuetako kide batzuk ikastola estrenatu berria eta hasierako urduritasunak lasaia hartu du; beste batzuentzako, ordea, dena ezaguna.

Norberak bere egunerokoa zabalik utz dezan ea egin behar zuena bete duen ikusteko, ea gertatzea nahi zituen gauza guztiak bete diren eta egiteko gelditzen direnak ere ikusteko.

2017. urtea gertu daukagu eta desio berri-zaharrak Lauaizetatik Lau Haizeetara zabalduko ditugu:

- Euskararen eguna bai, baina egun guztiak izan daitezela euskararen eguna.
- Emakumeen aurkako indarkeriari ezetz esateko eguna, baina egun guztiak izan daitezela horren islada.

**URTE BERRI ON!!!**

**EUSKARA LAUAIZETATIK LAUA HAIZEETARA!!**

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ!!**

LAUAIZETA IKASTOLA